

KUPELAK

Hortxe egoten zen tentazioa. Leihorik gabeko ikuiluko gune ilun horretan. Hortxe egoten zen tentazioa: ilunpetan bistara. Itsu-itsuan eskura. Lau hilabete eta erdian egoten zen sagar-zukua hartitzen. Tentazioa. Halaxe bizi zuen Domingok. Ferminlagunari esaten zion:

- Poliki pasatzen da denbora, mantsoegi!
- Pazientzia baino dohain hoberik ez da, Domingo! Jakin egin behar da itxaroten.
- Nik ezin dut ba! Aurrekoan ia sartu nuen muturra kupelean barrura.

Eta Domingok ikuilura eramane zuen Fermin, kupelak egoten ziren tokira zuzenean.

- Ikusten duzu muztioak gaineko aldean duen sare hori? Armiarmak balitu eznuke eskurik sartuko, baina... gozoa behar du hor barrukoak, Fermin!
- Bai, baina... itxaroten badugu gozoagoa izango da...
- Nork jakin, Fermin. Ez dugu inoiz abenduan probatu! Akaso...
- Ez egin halakorik, Domingo! Iritsiko da otsaila, eta gustura irekiko duzu iturriaorduan!

Eta ilunpetan hasperen egiten zuen Domingok; Ferminek arrazoi zuen, bai. Iritsiko zen bai, otsoen hila, otsaila, eta ulu egingo zuen Domingok, gozo, ilargiari begira. Bitarteanamets egingo zuen, kupelak gozoago bai, baina batez ere, beteago topatuko zituela otsailean.